

# B euskararen BERRIPAPERA

## Euskararentzako dirulaguntzak

**E**uskararen Erabilpena Arauzotzeko Oinarrizko Legeak euskal herri-agnitariak euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarriko dituztela dio.

Hori dela eta, Kultura Sailak deialdiak plazaratzen ditu, urtero, hainbat esparrutan euskara sustatu, garatu eta normalizatzearen aldeko egitasmoak diruz laguntzeko.

Aurki izango dira kalean euskal prentsa idatzia eta euskalgintza izeneko deialdiak.

### Euskal prentsa idatzia

Prentsa idatzian euskararen erabilera sendotu eta indartzeko eta euskal prentsa-egitasmoak bideragarriago egiteko dirulaguntzak pertsona juridiko pribatuek eskatu eta jaso ahal izango dituzte, hain zuzen ere, beharrezko lege-nortasuna izanda, euskarazko eguneroko zein aldizkako prentsa editatzen dutenek. Horretarako, guztira, 198.100.000 pezetako dirulaguntzak emango dira.

Aurtengo deialdian bilduko da lehen aldiz euskal prentsa idatzia osoa, orain arte, aldizkariak bakarrik sartzen baitziren. Hori horrela bada ere, bakoitzari berea aitortu nahian, bost atal bereizi dira. Atal bakoitzari diru-kopuru jakina izendatzeaz gain, dirulaguntzak emateko irizpideak ere desberdinu egin dira atal bakoitzaren. Izan ere, ez baitira konparagarriak *Euskaldunon Egunkaria*, *Argia* astekaria, *Ipurbeltz* haur-aldizkaria, *Jakin* edota herri-aldizkari bat, baten batzuk aipatzeko-

tan. Hona, beraz, egin den sailkapena eta atal bakoitzerako diru-kopurua:

- ✓ Euskararen esparru geografikoko eguneroko prentsa: 120.000.000 pta.
- ✓ Euskararen esparru geografikoko astekariak: 15.000.000 pta.
- ✓ Euskararen esparru geografikoko haur eta gazte aldizkariak: 13.100.000 pta.
- ✓ Euskararen esparru geografikoko bestelako aldizkariak: 20.000.000 pta.

garritasun-planak, autofinantzaketan handitzeko ekimenak, irakurle berriak irabazteko proposamenak, etab. Gainerakoekin ere hitzarmenak izenpetzerik izango da, bi aldeek komenigarritzat joz gero.

### Euskalgintza

Euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatze lanetan diharduten pertsona juridiko pribatuentzako deialdi honetarako 65.000.000 pta. daude. Hemen ere, dagoen aniztasunean lehentasun



✕ *Aurtengo deialdian euskal prentsa idatzia osoa bilduko da lehen aldiz.*

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko herri eta toki mailako aldizkariak: 30.000.000 pta.

Bestalde, eguneroko prentsarekin, astekariekin eta haur eta gazte aldizkariekin hitzarmenak izenpetuko dira, aurrera begira bideragarritasuna bermatu ahal izateko. Hitzarmen horietan jaso nahi dira, besteak beste, adostutako bidera-

batzuk jartzeari begira, hainbat sail bereizi dira. Euskal prentsa idatzian bezalaxe, sail bakoitzak izendatua du bere diru-kopurua:

- Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko planak hain zuzen ere, kasuan kasuko planaren bideragarritasuna, diseinua edota jarraipena egiteko programak: 15.000.000 pta.

## S U M A R I O A

- 1 Euskararentzako dirulaguntzak
- 2 Laburrak  
Xenpelar dokumentazio zentroa  
Kontuan hartzeko
- 3 Egonaldiak familia euskaldunetan  
Deialdia  
Euskararen aldeko jaiak
- 4 Izen-abizenek  
Agerraldia Legebiltzarrean  
Lehen begirtuan


- Euskararen ondarea (kantuak, bertsoak, euskalkiak, etab.) jaso, gorde eta gizarteratzeko egitarauak: 10.000.000 pta.
- Euskaraz egindako materialak sustatzeko eta bideragarriago egiteko ekimen edo ekintza programak, batik bat haur eta gazteentzat prestaturikoak: euskarazko bideoak, bideojokoak, jostailuak, joko hezigarriak eta antzekoak, softwareak, eta beste hainbat ekimen zabaltzeko eginikoak, etab.: 10.000.000 pta.
- Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko egitarauak: 7.000.000 pta.
- Irratietan euskararen erabilera sustatzekoak: 8.000.000 pta.
- Bestelako egitarauak: euskararen erabilera aisia, material sorkuntza, euskararen historian edo hizkuntzari loturiko hainbat eremutan izen handia duten pertsonaia omentzeko edo bestelako ospakizunak antolatzeko jarduerak, etab.: 15.000.000 pta.

## LABURRAK

## Euskaldunon GIDA

Bilboko Mikoleta Euskara Elkartek, ARTEZ Euskara Zerbitzuaren laguntzaz, kaleratu du bigarren aldiz *Euskaldunon Gida*. Gida hau euskaldunak elkar ezagutzeko eta harreman komertzialak euskaraz bultzatzeko sortu da. Gidan sartu dira, langileen gutxienez % 33 euskalduna izanik, publikoari harrera euskaraz egiten dioten bulego eta zerbitzuak. Bigarren Euskaldunon Gida honetan lehenengoan baino askoz osatuago dago informazioa: lehenen 6.300 fitxa ziren eta bigarrenen 19.000 dira. Herri askotan egindako informazio-bilketa zehatzari esker

handitu da hainbeste helbide-kopurua. Informazioa bi modutara dago sailkatuta: alde batetik, arloka eta bestetik, udalerrika. Gida bi urtetik behin argitaratuko da, urte bikoitietan.



## Izarren Hautsa berripapera

Elgoibarko Izarra euskara elkarteak *Izarren Hautsa* berripaperaren 4. zenbakia argitaratu berria du. Testu eta irudiz hornitutako 8 orrialdeetan zehar elkartearen azken bost urtetako historia zehatza deskribatzen digu. Izan ere, elkarteak bere bigarren etaparen 5. urteurrena bete berria du eta berripaperak gertaera garrantzitsu hori isladatu nahi izan du. Elkarteak lehen 10 urteetarako aurreikusita dauzkan bederatziko proiektuetatik batzuk dagoeneko martxan daude eta besteak ondoko bost urteetan abiarazi nahi dute.

Lehenengoan artean, Gurean Bai hitzarmena dago. Elgoibarko Izarra elkarteak prestatu eta Elgoibarko Udalak babestuta, 51 erakundek sinatu zuten hitzarmena. Elkarteak eta Udalak egindako gonbiteari erantzunez, erakundeek euren eguneroko funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko konpromezua hartu zuten, hiru urterako hitzarmena sinatuz.

## XENPELAR dokumentazio zentroa


1992ko otsailean hasi zuen bere ibilbidea Xenpelar Dokumentazio Zentroak; *Euskal Herriko Bertsozale Elkartek* dokumentazio zentroaren proiektua eratzeko egindako deialdia izan zen abiapuntua. Erreterian, Xenpelar bizi izan zen etxean, eman zituen lehen pausoak dokumentazio zentroak eta Arantza Mariskal dokumentalista izan zen zentroa diseinatu eta abian jarri zuena. Egun, Donostiako Alde Zaharrean kokatutako egoitzan burutzen dute beren eguneroko lana. Bertsolaritzarekin zerikusia duen guztia biltzea eta antolatzea da beren egiteko nagusia. Hala ere, egiteko nagusi hori hainbat azpiataletan banatuta dago. Horietako bat, liburutegia da. Bertsolaritzari buruz argitaratzen diren liburuak sailkatu eta hustu egiten dituzte. Beste zereginetako

bat bertsolarien produkzioa da. Orain arte sortua dagoena eta etengabe sortzen ari dena biltzea da helburua.

Bertsolaritzaren inguruan egiten diren jardunaldi, hitzaldi, debate, etab. i buruzkoa ere jaso eta sailkatzen da. Prentsan, egunero, bertsolaritzaren inguruan kaleratzen den materiala ere biltzen dute. Eta badute bertsolaritzaren inguruko argazki-artxiboa ere.

Zentroan duten materiala, neurri handi batean bederen, informatizatua izanik ere, aurrera begira badute alderdi horretatik eronkarik.

Gaikako katalogazioa bereziki zaila izanik, horixe da epe laburrera duten helburuetako bat. Teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak aprobeztatuz, bertako materiala jendearen eskura jartzeko material hori



egokitzea ere begi-bistan duten helburua da. Gaur egun, zentroan dagoen materiala *Euskal Herriko Bertsozale Elkartea* sortu zenetik gaur artekoa da batez ere. Lehenagoko materiala hainbaten eskutan dago eta material hori guztia lehentxeago edo geroxeago uzartzea eta erabilgaitzailearen esku modu erabilgarrian jartzea da Xenpelar zentrokoek duten helburu garrantzitsua. Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen du dirulaguntza Zentroak.

## KONTUAN HARTZEKO

## ... eta Kitto Biltokia

Eibarko *...eta Kitto Biltokia* euskara elkarteak egitasmo oparoarekin dator hil honetan ere. Besteak beste, musika saioez, argazki erakusketaz eta solasaldiaz gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnak. Apirilaren 19an Javier Muguruzaren emanaldia da musika arloan aipagarriena. Eta ligatzeko teknikei buruzko solasaldia burutuko du Andoni Egañak apirilaren 25ean.

## Expolingua

Expolingua erakusketak apirilaren 16tik 20ra bitartean egingo da Madrilan. Hezkuntza eta Kultura Ministeritzaren eta Europako Batasunaren Batzordearen babespean antolatu da. Bertan izango dira Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, elkarrekin, euskararen inguruko berriak eta jakingaiak zabaltzeko. Han izango dira ikusgai, besteak beste, azken urteotan egindako hainbat lan.

★ **Ahoz aho, belaunez belaur ... hil honetan non?**

**Apirilaren 7tik 20ra Beasainen**

**Apirilaren 21etik 27ra Leitza**

**Apirilaren 28tik maiatzaren 4ra Donezteben**

# Egonaldiak familia euskaldunetan

**E**gonaldiak familia euskaldunetan programaren beste edizio bat jarri du martxan

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Egitasmo honen bidez, euskara ikasleei hizkuntza landu eta hobetzeko, eta euskalkiren bat ikasleko aukera eman nahi zaie. Era berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko parada ematen zaie. Horretarako, etxean ikaslearen bat hartu nahi duten familia euskaldunek izena eman behar dute apirilaren 8a baino lehen HABE erakundearen, horren bidez gauzatzen baita programa, hain zuzen ere. Familiek lau kide izan behar dute gutxienez eta % 70tik gorako euskaldun-kopurua duten udalerrietan bizi.



Egonaldiak uztailetik iraila bitartean egingo dira eta familia bakoitzak gehienez ikasle bat hartu ahal izango du hila-bete bakoitzeko.

Plangintzan 18tik 40 urtera bitarteko edozein ikasle har dezake parte. Horrez gain, HABEren 8. urratsa edo horren baliokidea den euskara maila gaindituta eduki behar dute.

Ikasleak familiako bizitzan parte hartuko du eta haren bizimodura moldatu beharko du.

1986an sortu zenetik 1.067 familiak eta 1.997 ikasle hartu dute parte programan.

Informazio gehiago jasotzeko HABEra deitu (943-412600).

## DEIALDIA

Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-en ikasketa-laguntzak

Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek bi lan-poltsa iragarri dituzte katalanaren edo euskal kulturaren alderdi jakin batez interesaturiko gazteentzat. Ikasketa-laguntza bakoitzaren zenbatekoa 600.000 pezetakoa da eta katalan edo euskal hizkuntzadun eskualde batean egin beharreko hiru hilabeteko egonaldiaren gastuak ordaintzeko dira.

Ikasketa-laguntzarako hautagaiak ikertzaile gazteak izango dira, 1986-1997 urteetan, biak barne, unibertsitate fakultateetan edo goi-mailako ikastetxeetan lizentziatuak edo graduatuak. Hautagaiak bi erakundeetako edozein egoitzatan aurkez ditzakete beren eskaerak, apirilaren 28a baino lehen. Informazio gehiago nahi izanez gero, bi erakundeetako batera jo daiteke.

## Euskararen aldeko jaiak

**P**auso pauso, euskararen bidea osatuz, badatoz aurten ere euskararen inguruko jaiak. Kalifornian 1970eko hamarkadan ospatzen ziren ekitaldiak eredutzat hartuz, 1977an antolatu zen Beasainen eta Lazkaon ikastolen aldeko lehen jaiak. Euskarari eta ikastolei eman zien sostengua jai hark eta izan zuen oihartzuna medio, antzeko ekitaldiak antolatu ziren inguruko herrialde guztietan. Geroztik, urtero

antolatu izan dira jaialdi horiek: **Kilometroak, Ibilaldia, Araban Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats** eta baita **AEK Eguna** ere.



**Hasier Etxeberria**



Hasier Etxeberriak *Gabriel Aresti XIV. Ipuin lehiaketaren* lehen saria jaso du euskarazko Sailean, *Ipuin postmoderno bat egin diot nere buruari* lanari esker. Elgoibarren jaio zen Hasier 1957an. Euskal Telebistan ari izan da lanean azken urte hauetan, gidoilari eta aurkezle modura, hainbat kultur eta gastronomi programa aurkeztu izan duelarik. Beste hainbat sari ere irabazi izan ditu, bai literaturan bai

kazetaritzan. Literatura arloan, Bilintx Saria, Imajina Euskadi eta Tene Mujika ipuin-saria irabaziak ditu. Kazetaritzan, berriz, Rikardo Arregi Saria eta Emakunde Saria. Hasierrek zenbait liburu argitaratu ditu: *Ipuin ezberdinak eta erregalokoak*, *Estatua baten historia*, *Mugetan* eta *Alajainetan*. Bere azken liburua sukaldaritzari buruzkoa da, *Sukaliztegi partikularra*.

**Xabier Larrañaga**

Begarako Jardun elkarteak antolatutako *Amodiozko Gutunen V. Berrigara lehiaketaren* irabazle gertatu da aurten Xabier Larrañaga. *Besteren nahiak bete nahian* lanari esker irabazi du sariketa. Lehiaketara 194 karta aurkeztu ziren. Xabier Larrañaga orain 26 urte jaio zen Getxon eta egun Muskizko euskaltegian dihardu irakasle lanetan. Hasi berria bada ere, ez da hau jasotzen duen lehenengo saria. Amodiozko

gutunen inguruko eta bestelako lehiaketatan hainbat sari irabaziak ditu. Besteak beste, Barakaldoko Kultur Etxeak iaz antolatutako lehiaketan 2. eta 3. sariak jaso zituen eta aurtengo txandan originaltasun saria eman diote. Aurten, aipatutakoez gain, *El Correo Español* egunkariak antolatutakoan ere irabazle gertatu da. Gaztelaniaz ere idatzi ohi du.




**Agerraldia Legebiltzarrean**

Martxoaren 6an, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak berak eskatutako agerraldia izan zuen Eusko Legebiltzarreko Herrizaingo eta Iraskunde Batzordean. Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren jardunaz mintzatu zen eta, hain zuzen ere, lau gai jorratu zituen: egungo egoera eta joera nagusien azterketa; euskararen erabilera normaltzeko egitarau nagusiak; euskararen sentiberatzea eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Hizkuntza Politikarako Sailordetzak etorkizunari begira dituen erronka nagusiak ere adierazi zituen: legebiltzarkideei. Bostera ekarri zituen: familia bidezko euskararen jarraipena sustatzea; kantitateari ez ezik kalitateari ere arreta jarritz, euskaldunberrien hizkuntza gaitasuna sendotu eta hobetzea; erakunde publiko eta pribatuaren hizkuntza-jokabideak belaunaldi berrien beharrianetara egokitzeko baldintzak jartzen joatea; herri-aginteen dirulaguntzen politikan eta zerbitzuen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezartzen joatea. Hortaz, azken urteotako lanaren gaineko gogoeta egin zuten denen artean eta aurreratu zituzten Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren zertzelada nagusiak eta, lehen esan bezala, etorkizuneko erronkak.

**Lehen begiratuan**

**H**izkuntza Politikarako Sailordetzak ateratzen duen *Bidegileak* bildumaren barruan 7. karpeta kalean da dagoeneko. Honen barruan euskalgintzan aitzindari izan diren lau gizonen berri eman da: Faustino de Zerio, Pedro Diez de Ultzurrun, Andoni Urrestarazu eta Odon Apraiz. Laurok mende honetakoak izateaz gainera, euskaldunberriak dira, ingurune erdaldunetan sortuak eta euskara ikasi eta erabiltzearen aldeko sustatzaile eskergak. Bidegile gertatu dira, inolako zalantzarik gabe, aipatu lau euskaltzaleak.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Sailordetza**

Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

